

# ARTISTAS EN RESIDENCIA BILBAOESZENA

## Bases de la convocatoria de becas 2020

### **ARTÍCULO 1.- OBJETO**

1.1 El objeto de esta convocatoria es regular el procedimiento de concesión de becas, por parte del Ayuntamiento de Bilbao, en el año 2020, para el desarrollo de proyectos escénicos dentro del programa “Artistas en Residencia 2020” de Bilbaoeszena.

1.2 El programa “Artistas en Residencia 2020” de Bilbaoeszena tiene como objetivo principal apoyar, ofertando recursos económicos e infraestructuras, a entidades artísticas y artistas a nivel individual, que quieran desarrollar procesos de creación o investigación en los ámbitos escénicos.

1.3 Al menos una de las becas será destinada a proyectos en los que los resultados a presentar de cara al público y/u otros artistas sean exclusivamente en euskera, o bilingüe y las otras becas serán destinadas a artistas o colectivos de artistas del País Vasco.

### **ARTÍCULO 2.- REFERENCIAS GENERALES DE LA CONVOCATORIA**

2.1 El programa “Artistas en Residencia 2020” de Bilbaoeszena está promovido por el Área de Cultura (Dirección de Cultura) del Ayuntamiento de Bilbao.

2.2 Financiación de la convocatoria

CANTIDAD DESTINADA A ESTA CONVOCATORIA..... 12.000 €

CÓDIGO PEP: 2020/00014

Partida presupuestaria: 2020 51000 33410 4809900

2.3 Finalidades de la convocatoria:

- estimular la creación artística a través de propuestas escénicas desarrolladas por artistas vinculados a estas disciplinas;
- potenciar procesos de investigación en la creación artística que tengan al ámbito escénico y, especialmente, las nuevas dramaturgias como vector principal;
- facilitar a artistas y público locales el conocimiento de procesos de creación e investigación desarrollados en el País Vasco.

2.4 Dotación económica de las becas: La dotación por beca será de **4.000 €**

2.5 Nº máximo de becas: **3**

2.6 Número máximo de proyectos a presentar:

Cada solicitante solo podrá presentar un proyecto.

2.7 Régimen de concesión: concurrencia competitiva

2.8 Composición de la Comisión de Valoración:

La Comisión de Valoración estará compuesta de: el CONCEJAL DELEGADO DEL ÁREA DE CULTURA, el DIRECTOR DE CULTURA, el SUBDIRECTOR DE PROGRAMACIÓN CULTURAL y la JEFA DE GRUPO DE ARTES ESCÉNICAS.

El personal técnico Instructor será el SUBDIRECTOR DE PROCESOS ADMINISTRATIVOS Y CALIDAD.

La Comisión de Valoración podrá estar asesorada por expertos en las artes escénicas elegidos por ésta.

### **ARTÍCULO 3.- CARACTERÍSTICAS DE LOS PROYECTOS A PRESENTAR**

Los proyectos que se presenten a esta convocatoria deberán tener las siguientes características:

- Deberán plantear el desarrollo de un proceso de creación o investigación en los ámbitos escénicos, especialmente en aquellos más relacionados con las nuevas escenas, que posea un interés específico, teniendo como eje principal el teatro, la danza y/o el movimiento, sin descartar proyectos más relacionados con disciplinas más tradicionales de las artes escénicas como el teatro de calle, el circo, etc.
- Deberá ser susceptible de adaptarse a las condiciones de desarrollo (duración, ubicaciones, fechas,...) establecidas en el art. 4 de estas bases y adaptarse a las cuantías establecidas en el art. 2.2.
- Podrán constituir el desarrollo parcial de un proyecto más amplio.

### **ARTÍCULO 4.- DESARROLLO DE LA RESIDENCIA**

#### **4.1 DURACIÓN**

La duración de cada residencia será de **25 días como máximo** y se llevarán a cabo, de forma intensiva durante este período, en base al proyecto artístico presentado y seleccionado.

#### **4.2 ESPACIOS Y LOCALIZACIONES**

Se pondrá a disposición de los artistas seleccionados locales municipales para el desarrollo de sus proyectos, aunque con carácter extraordinario, si no supone un sobrecosto para BilbaoEszena, se podría plantear utilizar otros locales sitios en la Villa. La ubicación exacta de cada residencia se acordará con los seleccionados en función de las características de cada proyecto.

#### **4.3 FECHAS**

Todas las residencias artísticas de esta convocatoria se realizarán preferentemente durante los meses de julio, agosto, septiembre y primera quincena de octubre del año 2020.

El o los artistas, podrán proponer sus semanas de trabajo dentro de ese período del año y dependerá de la Organización la decisión final al establecer un calendario donde no se produzcan solapamientos de actividades y se sigan los criterios de disponibilidad y los parámetros de uso de los espacios que acogerán las residencias. Estas decisiones se intentarán consensuar entre la organización y los propios artistas.

#### **4.4 APOYO TÉCNICO**

Algunas de las residencias podrán disponer, si es posible y la organización lo estima necesario, de cinco días de trabajo técnico con sonido e iluminación en un

espacio acondicionado especialmente para ello, con los medios y técnicos que decida BilbaoEszena.

### **ARTÍCULO 5.- SOLICITANTES**

5.1. Podrá solicitar una de estas becas cualquier persona física o jurídica, interesada en promover o realizar proyectos que tengan las características descritas en el art. 3 de estas Bases.

5.2 Los proyectos becados podrán ser presentados por artistas individuales y colectivos de artistas, mayores de 18 años.

5.3 Las becas podrán ser solicitadas por personas de cualquier nacionalidad.

5.4 No podrán ser beneficiarios de la beca las personas incursoas en cualquiera de las causas de exclusión o prohibición previstas en el art 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones o en el art. 24.2 de la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres.

### **ARTÍCULO 6.- SOLICITUDES**

#### **6.1. Plazo de presentación de las solicitudes.**

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el **día 8 de marzo de 2020**. (Inclusive).

#### **6.2. Información y tramitación de solicitudes.**

Toda la información relativa a la convocatoria estará disponible en la web del festival BAD ([www.badbilbao.eus](http://www.badbilbao.eus)).

Las solicitudes deberán presentarse necesariamente a través de la página web del festival BAD [www.badbilbao.eus](http://www.badbilbao.eus) rellenando el formulario habilitado a este efecto (Hoja de Solicitud) y adjuntando la documentación señalada en el artículo 7 de las bases.

#### **6.3. Hoja de Solicitud.**

Para la presentación del proyecto se deberá rellenar en la página web una Hoja de Solicitud, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento, acompañada de la documentación solicitada en el art. 7 de estas bases. Esta hoja de solicitud será diferente para artistas individuales y para colectivos.

#### **6.4. La cantidad solicitada será en todo caso 4.000 €.**

El Ayuntamiento podrá recabar a las personas o colectivos solicitantes cuantas aclaraciones estime oportunas para la mejor valoración de la solicitud presentada.

#### **6.5 Idioma de presentación**

Los proyectos podrán presentarse en euskera o castellano.

### **ARTÍCULO 7.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR**

#### **7.1 Documentos generales:**

- Hoja de Solicitud, según modelo oficial.
- En el caso de solicitudes presentadas por personas físicas, fotocopia del D.N.I. de cada uno de los solicitantes. En caso de personas jurídicas, escritura de constitución y/o estatutos y fotocopia del CIF.
- Currículo del artista/colectivo que solicita la ayuda.

- Las personas que tienen residencia fiscal en territorio del Estado español, deberán aportar, con carácter previo a la concesión, la siguiente documentación:

a) La autorización expresa al Ayuntamiento de Bilbao para que compruebe que la entidad no tiene deudas con este ayuntamiento, así como a comprobar si está al corriente de sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social (le advertimos que, en caso contrario, deberá aportar en papel los certificados de Hacienda Foral y de la Tesorería General de la Seguridad Social). **(ANEXO III)**.

b) Una "Declaración responsable" de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres **(ANEXO I)**.

c) Si no han recibido nunca un pago del Ayuntamiento de Bilbao por cualquier concepto y, por lo tanto, no figuran inscritas en el Registro municipal de Acreedores deberán presentar, debidamente cumplimentada, la "Ficha de Acreedores" (según modelo que se les facilitará) a la que se le adjuntará el DNI/NIF/Pasaporte, y cualquier documento por el que quede acreditada la titularidad de la cuenta bancaria donde deba realizarse el ingreso.

En el caso de que la persona tuviera residencia fiscal en el extranjero, deberá aportar, en vez de la autorización requerida en el apartado a), El "Certificado de Residencia Fiscal" emitido por la autoridad competente de su país de residencia.

**7.2.** Si la solicitud no estuviera debidamente formalizada o faltara algún dato o alguno de los documentos mencionados, se requerirá por correo electrónico a la persona o entidad solicitante para **subsana las deficiencias en el plazo de 10 días hábiles**, indicándole que, si no lo hiciese, se archivará la solicitud sin más trámite.

## **ARTÍCULO 8.- CRITERIOS DE VALORACIÓN**

Se valorarán en todo caso los programas presentados aplicando estos criterios y puntuaciones:

**A) Criterios para la valoración del proyecto..... TOTAL 70 puntos**

**a) Interés artístico del proyecto. .... hasta 40 puntos**

*Cuestiones que se podrán valorar dentro de este criterio:*

Adecuación del proyecto al objeto, las finalidades y las condiciones de desarrollo señaladas en la convocatoria, innovación, impacto previsto, relación entre el interés del proyecto y el presupuesto presentado.

Asimismo, se valorarán especialmente aquellos proyectos en los que colaboren varios artistas conjuntamente, con vistas a potenciar que creadores de diferentes ámbitos se junten para poner en marcha nuevas propuestas.

**b) Viabilidad del proyecto..... hasta 20 puntos**

*Cuestiones que se podrán valorar dentro de este criterio:*

Acciones o avances futuros previstos del proyecto de investigación o creación.

En este caso, se valorará también la necesidad en sí de la residencia en concreto.

**c) Tratamiento dado al euskera..... hasta 10 puntos**

Cuestiones que se podrán valorar dentro de este criterio:

Actividades a desarrollar total o parcialmente en euskera; uso del euskera en los procesos creativos o en las acciones propuestas de comunicación.

**B) Valoración de la persona o colectivo solicitante..... TOTAL 10 puntos**

Cuestiones que se pueden valorar dentro de este criterio:

Experiencia contrastada; capacidad para desarrollar el proyecto; currículum artístico.

**ARTÍCULO 9.- SELECCIÓN DE PROYECTOS**

9.1 La propuesta de concesión de las becas se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una relación entre las mismas, de acuerdo con los criterios señalados en el artículo anterior, adjudicando las becas a aquellas que hayan obtenido mayor valoración, sin sobrepasar, en ningún caso, el importe de la dotación presupuestaria fijada en las bases específicas de la convocatoria.

9.2 El umbral mínimo de puntos que cada proyecto debe alcanzar para tener derecho a beca será 50 puntos.

9.3 La Comisión de Valoración, en caso de considerarlo necesario, podrá realizar entrevistas personales a las personas aspirantes, debiendo referirse siempre el objeto de las mismas a aspectos relacionados con la presente convocatoria.

9.4 Alcanzado el umbral mínimo, la Comisión de Valoración realizará una propuesta de beneficiarios en función de la puntuación y criterios de selección. En principio, esta propuesta se hará pública el día **25 de mayo de 2020**.

9.5 La Comisión de Valoración podrá proponer una relación nominal de suplentes en previsión de que algún proyecto seleccionado no se realizara, bien por renuncia, bien por cualquier otro motivo.

**ARTÍCULO 10.- DETERMINACIÓN FINAL DE LAS BECAS**

10.1 La Comisión de Valoración podrá ponerse en contacto con los y las artistas y compañías preseleccionadas para solicitar más información y, en su caso, una entrevista personal.

10.2 Una vez realizada la selección de los proyectos, se iniciará un proceso de trabajo en común entre la Organización y el o los artistas, mediante el que se concretarán todos los puntos relacionados con el proyecto a desarrollar.

10.3 En este proceso se determinarán:

- La ubicación y fechas definitivas de la residencia
- Posibles tutor o tutores o acompañamiento artístico de la residencia (BilbaoEszena solo asumirá el costo de este acompañamiento en el caso de que los y las artistas seleccionadas vayan a contar con alguno de los acompañamientos artísticos que se le propongan)
- Los pagos a efectuar a cada uno de los solicitantes
- Las posibles aportaciones técnicas de Bilbaoeszena

10.3 El órgano municipal competente aprobará la concesión y cuantía de las becas.

En todo caso, la concesión de las becas queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

10.4 Tras este proceso, los artistas y la Organización firmarán un contrato aceptando explícitamente las condiciones del programa.

### **ARTÍCULO 11.- PLAZO DE RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN**

11.1 El plazo máximo de resolución de las solicitudes y notificación a las personas o entidades solicitantes será, como máximo, de tres meses desde que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

Las notificaciones tanto de las becas premiadas como de las denegadas se realizarán por medios electrónicos. También serán publicadas en la página web del festival BAD ([www.badbilbao.eus](http://www.badbilbao.eus)).

11.2 La resolución que acuerde o deniegue la concesión de las becas pondrán fin a la vía administrativa. Contra las mismas podrán interponerse por los interesados recurso potestativo de reposición ante el órgano que ante el mismo órgano que hubiera dictado el acto administrativo, en el plazo de 1 mes desde que se tenga conocimiento del mismo. Transcurrido dicho plazo únicamente podrá interponer recurso contencioso-administrativo.

11.3 La documentación de los proyectos no seleccionados no será devuelta y será destruida una vez resuelta la convocatoria.

### **ARTÍCULO 12 COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES**

12.1 Las becas que pudieran percibirse del Ayuntamiento de Bilbao serán compatibles con subvenciones, becas o ayudas de otras administraciones o entes públicos o privados.

12.2 En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del proyecto becado.

12.3. Las personas o entidades beneficiarias tienen la obligación de comunicar al Ayuntamiento de Bilbao la obtención para el mismo proyecto de otras subvenciones o ayudas financieras concedidas por otras Administraciones Públicas con posterioridad a la resolución municipal en un plazo inferior al mes desde la recepción de la notificación correspondiente.

### **ARTÍCULO 13.- ABONO DE LAS BECAS**

**13.1.** La forma de pago, será la siguiente:

- Un 75% al inicio de la residencia artística, una vez firmado el correspondiente contrato.
- el 25% restante tras la presentación de la memoria de la residencia concreta.

Para efectuar el abono anticipado, no se exigirá a la persona beneficiaria la constitución de una garantía.

**13.2.** En la dotación económica de la beca se incluyen todos los gastos de viaje, alojamiento, dietas, etc., que puedan devenirse de la estancia en esta residencia y que se asignan a cada artista.

**13.3.** La beca concedida será abonada mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente de la persona o entidad que figure en el Registro de Acreedores de este Ayuntamiento.

**13.4.** No se realizará el libramiento de ninguna ayuda financiera si la entidad solicitante no tiene totalmente justificado cualquier otro proyecto o programa subvencionado por el Ayuntamiento de Bilbao.

#### **ARTÍCULO 14.- PUBLICIDAD DE LA BECA POR PARTE DE LA PERSONA O ENTIDAD BENEFICIARIA Y DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO**

14.1 Toda persona o entidad a la que se conceda beca, deberá hacer pública esta financiación municipal mencionando que el proyecto se ha desarrollado con la ayuda del programa "Artistas en Residencia 2020" de Bilbaoezena e incluyendo el logotipo correspondiente en los materiales impresos que genere (carteles, folletos, hojas informativas...), en las placas conmemorativas, en los medios electrónicos o audiovisuales o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación escrita.

Para ello, el Ayuntamiento de Bilbao facilitará a las personas o entidades interesadas dicho logotipo.

14.2 El Ayuntamiento de Bilbao y Bilbaoezena, se reservan el derecho a poder obtener material audiovisual para su propio archivo y los soportes comunicativos que estime oportunos.

#### **ARTÍCULO 15.- OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIARIOS**

Son obligaciones del beneficiario:

- Ejecutar el proyecto que fundamenta la concesión de la beca, en los términos consensuados previamente por las partes y cumpliendo la jornada diaria que se fije.
- Caso de tratarse de proyectos de creación, se deberán utilizar obligatoriamente entre un 15 y un 20% de la ayuda económica para contratar a una persona o entidad que gestione la producción de la residencia. Se recomienda, por operatividad, que dicha persona o entidad sea un agente local (de la ciudad de Bilbao). Para ello, si el beneficiario lo solicita, se le facilitará un listado de personas o entidades bilbaínas especializadas en producción escénica.
- Realizar, sin remuneración alguna diferente a la beca concedida, una presentación final del trabajo y/o una acción pedagógica o didáctica con público o con otros artistas.
- Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la beca.
- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente.
- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta

comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

- Adoptar las medidas de difusión contenidas en el art. 14 de estas bases.

## **ARTÍCULO 16.- JUSTIFICACIÓN DE LAS BECAS**

### **16.1. Plazo de justificación.**

El plazo de justificación de las becas concedidas será de un mes a contar desde la finalización de la actividad.

### **16.2. Forma de justificación.**

La justificación se efectuará mediante la presentación por la persona o entidad beneficiaria de la cuenta justificativa de cada proyecto.

La cuenta justificativa incluirá:

- a) La memoria de las actividades llevadas a cabo para la ejecución del proyecto.
- b) Certificación del tutor o tutores, o de los responsables de Bilbaoezena en su caso, de haberse cumplido los objetivos del proyecto y de haberse realizado la presentación final del trabajo y/o una acción pedagógica o didáctica con público o con otros artistas.

## **ARTÍCULO 17.- REINTEGRO DE LA BECA**

17.1 El incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente traerá como consecuencia la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, junto al interés de demora, en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

17.2 En caso de no realizarse algún proyecto de los seleccionados, por causa imputable al o los responsables del mismo, o caso de que no coincida de una forma clara y evaluable el resultado final con el proyecto artístico, o con el presupuesto inicial, deberá procederse a la devolución total o parcial de la ayuda concedida.

## **ARTÍCULO 18.- NORMATIVA APLICABLE**

18.1 El hecho de participar en la convocatoria supone la íntegra aceptación de estas Bases. En lo no previsto en estas Bases regirá con carácter supletorio la "Ordenanza general reguladora de las Bases para la concesión de subvenciones mediante Convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público", aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB nº 138, de 20 de julio de 2016

## **BILBAOESZENA-REN ARTISTAK EGOITZAN**

### **2020ko beka-deialdiaren oinarriak**

#### **1. ARTIKULUA: XEDEA**

1.1 Deialdi orokor hauen xedea da Bilboko Udalak 2020. urtean beka emateko prozedura arautzea, hain zuzen ere, Bilbaoeszenaren "Artistak Egoitzan-2020" programa barruan proiektu eszenikoak garatzeko beka.

1.2 Bilbaoeszenaren "Artistak Egoitzan-2020" programaren helburu nagusia da arlo eszenikoetan sorkuntza edo ikerketa prozesuak garatu nahi dituzten artistei eta erakunde artistikoei laguntzea, dirua eta azpiegiturak emanez.

1.3 Beketako bat, gutxienez, jendaurrean edo/eta beste artista batzuen aurrean aurkeztu beharreko emaitza euskara hutsez ematen duen proiektuentzat izango da; eta beste beka Euskal Herriko artistentzat edo artista kolektiboentzat izango dira.

#### **2. ARTIKULUA: DEIALDIAREN ERREFERENTZIA OROKORRAK**

2.1 Bilbaoeszenaren "Artistak Egoitzan-2020" programa Bilboko Udalaren Kultura Sailak (Kultura Zuzendaritza) sustatzen du.

2.2 Deialdiaren finantzazioa

DEIALDI HONETARAKO DIRU KOPURUA..... **12.000 €**

PEP KODEA : 2020/00014

Aurrekontu-partida: 2020 51000 33410 4809900

2.3 Deialdiaren helburuak:

- Arte sorkuntza sustatzea, arte eszenikoei lotutako artistek garatzen dituzten proposamen eszenikoen bitartez.
- Arte sorkuntzan ikerketa-prozesuak bultzatzea, arlo eszenikoak eta, batez ere, dramaturgia berriak ardatz nagusiak izanik.
- Euskal Herrian garatzen diren sorkuntza eta ikerketa prozesuen berri ematea bertako artistei eta publikoari.

2.4 Beken diru-zuzkidura

Beka bakoitzeko: **4.000 €**

2.5 Gehieneko beka-kopurua: **3**

2.6 Gehienez aurkeztu ahal den proiektu-kopurua: eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake.

2.7 Bekak emateko araubidea: norgehiagoka.

2.8 Balorazio Batzordea

Balorazio Batzordearen osaera: Kultura Sailaren zinegotzi ordezkaria, Kulturako zuzendariordea, Kultur Programazioko zuzendariordea eta Arte Eszenikoen Taldeko burua.

Instruktore teknikoa Administrazio Prozesuen zuzendariordea izango da.

Arte eszenikoen arloko adituak Balorazio Batzordearen aholkulariak izan daitezke.

### **3. ARTIKULUA: AURKEZTUKO DIREN PROIEKTUEN EZAUGARRIAK**

Deialdira aurkezten diren proiektuek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Arlo eszenikoetan eta, batez ere, eszena berriekin zerikusia duten arloetan sorkuntza edo ikerketa prozesu baten garapena aurkeztu behar dute, antzerkia edo/eta mugimendua ardatz nagusia izanik. Hala ere, ez dira baztertuko arte eszenikoetako diziplina tradizionalekin lotutako lanak, hala nola kaleko antzerkiaren, zirkuaren inguruko lanak eta bestelako lanak.
- Oinarri hauen 4. artikuluan ezarritako garapen baldintzei (iraupena, kokalekua, datak...) egokitzeko gai izan behar dira, eta 2.2 artikuluan aipatzen diren diru-kopuruetara ere moldatu behar dira.
- Proiektu handiago baten garapen partziala izan daitezke.

### **4. ARTIKULUA: EGOITZAREN GARAPENA**

#### **4.1 IRAUPENA**

Egoitza bakoitzak gehienez **25 eguneko iraupena** du eta epealdi horretan modu trinkoan garatuko da, aurkeztu eta hautatutako proiektu artistikoan oinarrituta.

#### **4.2 ESPAZIOAK ETA KOKALEKUAK**

Udal lokalak jarriko dira artista hautatuen eskura, euren proiektuak garatu ditzaten. Hala ere, urian egon baina udalarenak ez diren lokalak erabiltzea proposa daiteke, aparteko izaeraz, baldin eta BilbaoEszenarentzat gain-kosturik ez badakar. Egoitza bakoitzaren kokaleku zehatza proiektu bakoitzaren ezaugarrien arabera adostuko da hautatutako artistekin.

#### **4.3 DATAK**

Deialdi honen egoitza artistiko guztiak ahal dela 2020ko uztailean, abuztuan, irailean eta urriko lehenengo hamabostaldian egingo dira.

Artistak edo artistek laneko asteak epealdi horren barruan proposatu ahal dituzte eta antolakuntzak egutegia proposatu eta azken erabakia hartuko du; bertan, ezin da jardueren arteko gainezarpenik egon eta egoitzen erabilera arauak bete beharko dira, espazio horiek erabiltzeko prest dauden ala ez aintzat hartuta. Erabaki horiek antolakuntza eta artisten artean adostuko dira.

#### **4.4 LAGUNTZA TEKNIKOA**

Egoitza batzuetan, ahal bada eta antolatzaileek beharrezkoa dela iritziz gero, lan teknikorako bost egun izan ahal dituzte, soinua eta argiak barne, beren beregi prestatutako leku batean. BilbaoEszenak erabakitako bitartekoak eta teknikariak egongo dira horietan.

### **5. ARTIKULUA: ESKATZAILEAK**

5.1. Edozein pertsona fisiko edo juridikok eska dezake beka horietako bat, oinarri hauen 3. artikuluan azaldutako proiektuen modukoak sustatu edo burutzeko.

5.2 Beka duten proiektuak 18 urtetik gorako artista bakoitzak edo artista taldeek aurkeztu ahal dituzte.

5.3 Edozein nazionalitatetako pertsonak eskatu ahal dute beka.

5.4 Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 13. Artikuluaren arabera, diru-laguntza lortzeko debeku edo bazter geratzeko kasuetako batean daudenez ezin dute beka jaso edo emakume eta gizon arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 24.2 Artikuluaren arabera.

## **6. ARTIKULUA.- ESKABIDEAK**

### 6.1. Eskabidea aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko **epea 2020ko martxoaren 8an** amaituko da (egun hori ere barne).

### 6.2. Informazioa eta eskabideen tramitazioa.

Deialdiaren inguruko informazioa BAD jaialdiaren web orrian ([www.badbilbao.eus](http://www.badbilbao.eus)) argitaratuko da.

Eskabideak BAD jaialdiaren web orrian ([www.badbilbao.eus](http://www.badbilbao.eus)) aurkeztu behar dira, horretarako prestatu den inprimakia betez (eskabide orria) eta oinarrietako 7. artikuluan adierazitako agiriak erantsi behar dira.

### 6.3. Eskabide orria.

Proiektu bakoitzeko eskabide orri bat bete beharko da web orrian, Udalak emandako ereduaren arabera eta oinarri hauen 7. artikuluan eskatzen den dokumentazioarekin batera. Eskabide orri ezberdinak daude artista taldeentzat eta norbanakoarentzat.

### 6.4. Eskatutako diru-kopurua **4.000 €** izango da.

Aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal dizkie Udalak pertsona edo talde eskatzaileei.

### 6.5 Aurkezpeneko hizkuntza

Proiektuak euskaraz edo gaztelaniaz bidali ahal dira.

## **7. ARTIKULUA: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

### 7.1 Agiriak:

- Eskabide orria (eredu ofiziala).
- Eskatzaileak pertsona fisikoak badira, bakoitzaren NANaren fotokopia. Eskatzaileak pertsona juridikoak badira, eraketa-eskritura eta estatutuak eta IFKren fotokopia.
- Diru-laguntza eskatzen duen artistaren edo artista-taldearen curriculumak.
- Egoitza fiskala Estatu espainiarrean duten pertsonen, saria emandako aurretik, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Beren beregi ematen diola Bilboko Udalari BAIMENA egiazta dezan Udalarekin ez daukala zorrik. Era berean, beren beregi ematen dio Udalari baimena Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ez daukala zorrik egiazta dezan (Bestela, Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu). **(III. ERANSKINA)**.

a) Erantzukizunezko adierazpena, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24-2. artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adierazten duena. **(I. ERANSKINA)**.

b) Bilboko Udalaren aldetik, kontzeptua edozein izanda ere, inoiz ordainketarik jaso ez dutelako Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonen, "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta

aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera). Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportearen eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

Egoitza fiskala atzerrian duten pertsonak, a) atalean eskatzen den baimena emon beharrean, "Egoitza Fiskalaren Ziurtagiria", egoitza duen nazioan eskumena duen agintariak egina aurkeztu beharko dute

7.3 Eskaria ez badago behar bezala beteta, daturen bat edo agiriren bat falta bada, eskaria egin duen pertsonari edo erakundeari posta elektronikoz eskatuko zaio akatsak zuzentzea, eta 10 egun balioduneko epea emango zaio. Ez badu horrela egiten, eskaria artxibatu egingo da izapide gehiagorik egin barik.

## **8. ARTIKULUA: BALORAZIO IRIZPIDEAK**

8.1. Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauen arabera baloratuko dira:

### **A) Proiektua baloratzeko irizpideak..... GUZTIRA 70 puntu**

#### **a) Proiektuaren interes artistikoa..... gehienez 40 puntu**

*Irizpide horretan baloratu ahal diren gaiak:*

Proiektua deialdian adierazitako garapen-baldintza eta helburuei egokitzea, berrikuntza, aurreikusitako eragina, proiektuaren interesaren eta aurrekontuaren arteko erlazioa.

Era berean, artista batzuek batera elkarlanean diharduten proiektuak bereziki baloratuko dira, proposamen berriak abian jartze aldera arlo ezberdinetako sortzaileak batzea sustatzeko.

#### **b) Proiektuaren bideragarritasuna ..... gehienez 20 puntu**

*Irizpide horretan baloratu ahal diren gaiak:* Ikerketa edo sorkuntza proiektuan aurreikusten diren ekintzak edo aurrerapenak.

Egoitzaren beharra bera baloratuko da kasu honetan.

#### **c) Euskararen tratamendua..... gehienez 10 puntu**

*Irizpide horretan baloratu ahal diren gaiak:* Euskaraz (dena edo zati bat) garatzen diren ekintzak; Sorkuntza prozesu eta jakinarazteko proposatutako ekintzetan euskararen erabilera.

### **B) Pertsona edo talde eskatzailearen balorazioa..... GUZTIRA 10 puntu**

*Irizpide horretan baloratu ahal diren gaiak:* Esperientzia egiaztatua; proiektua garatzeko gaitasuna; curriculum artistikoa.

## **9. ARTIKULUA: PROIEKTUEN HAUTAKETA**

9.1 Bekak emateko proposamena egin aurretik, aurkeztutako eskabideak erkatu eta horien lehentasun-ordena ezarriko da, aurreko artikuluan agertu diren irizpideen arabera. Horrela, baloraziorik onena izan duten eskabideei beka emango zaie, deialdiren oinarri espezifikoetan ezarritako aurrekontua inola ere gainditu gabe.

9.2 Beka jasotzeko eskubidea izateko, proiektu bakoitzak gutxienez 50 puntu izan behar ditu.

9.3 Balorazio Batzordeak, beharrezkotzat jotzen badu, hautagai bakoitzari elkarrizketa egin ahal dio, eta elkarrizketa horiek deialdi honi lotutako gaiak izan behar dituzte helburu.

9.4 Gutxieneko puntuazioa lortuta, Balorazio Batzordeak onuradunak proposatuko ditu puntuazioaren eta hautaketa-irizpideen arabera, eta proiektu bakoitzerako diru-kopuruak ere proposatuko ditu. Hasiera batean, **proposamena 2020ko maiatzaren 25ean jakinaraziko da.**

9.5 Hautatu den proiekturen bat, uko egiteagatik edo beste edozein arrazoigatik, egingo ez dela aurreikusten bada, Balorazio Batzordeak ordezkoen zerrenda proposatu ahal du.

## **10. ARTIKULUA: BEKEN AMAIERAKO ZEHAZTAPENA**

10.1 Balorazio Batzordea aukeratutako artistekin eta konpainiekin jar daiteke harremanetan, informazio gehiago eskatzeko eta, hala badagokio, elkarrizketa pertsonala egiteko.

10.2 Behin proiektuak hautatuz gero, antolakuntza eta artisten arteko lankidetzaren prozesua hasiko da, eta garatu nahi den proiektuarekin zerikusia duten gaiak zehaztuko dira.

10.3 Prozesu horretan zehaztu beharrekoak hauexek dira:

- Behin betiko kokalekua eta datak.
- Egoitzaren tutorea(k) edo laguntzaile artistikoa(k) izan litezkeenak. (BilbaoEszenak bere gain hartuko du lagun egitearen kostua hautatutako artistek haiei proposatutako lagun egite artistikoa izango badute soilik.)
- Eskatzaile bakoitzari ordaindu beharrekoa.
- Bilbaoeszenak egin ditzakeen ekarpen teknikoak.

10.3 Udalaren organo eskudunak beka ematea eta diru-kopurua onetsi behar ditu.

Hala ere, diru-laguntzak emateko, kreditu nahikoa eta egokia egon behar da diru-laguntza ematea erabakitzen den unean.

10.4 Prozesu hori amaituta, artistek eta antolakuntzak programaren baldintzak onartzen dituztela izenpetuko dute dokumentu batean.

## **11. ARTIKULUA: EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA**

11.1 Eskabideak ebatzi eta eskatzaileei jakinarazteko epea gehienez hiru hilekoa da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Saritutako eta ukatutako beken jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira. BAD Jaialdiko web orrian ([www.badbilbao.eus](http://www.badbilbao.eus)) ere argitaratuko dira.

11.2 Bekak ematea edo ukatzea erabakitzen duen Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du. Ebazpen horren aurka interesdunak berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dio administrazio-egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, horren berri duen egunetik hasita. Epe hori amaitzen denean bakarrik jarri ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua.

11.3 Hautatu ez diren proiektuen dokumentazioa ez da itzuliko, eta deialdia ebatzi ondoren suntsitu egingo da.

## **12. ARTIKULUA: BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU LAGUNTZA BATZUEKIN**

12.1 Bilboko Udaletik jasotzen diren bekak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde pribatu nahiz publiko batzuetako diru-laguntza, beka edo laguntzekin.

12.2 Nolanahi ere, diru-laguntza edo beste bide batzuetatik eskuratu den finantzazioa, ezin daiteke beka emandako proiektuaren kostua baino handiagoa izan.

12.3. Pertsona edo erakunde onuradunek udal ebazpenaren ondoren proiektu bererako beste herri administrazio batzuetatik diru-laguntzak jasotzen badituzte, Bilboko Udalarri derrigorrean jakinarazi beharko diote, hilabete baino lehenago dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik.

## **13. ARTIKULUA: BEKA ORDAINTZEA**

13.1. Beka honela ordainduko da:

- % 75 egoitza artistikoaren hasieran, dagokion kontratua sinatutakoan.
- Beste % 25a egoitza zehatz baten memoria aurkeztu ondoren.

Ordainketa aldeztatik egiterakoan, pertsona onuradunari ez zaio bermea ezartzea eskatuko.

13.2. Bekaren diru-kopuruaren barruan daude egoitza egonaldiaren ondorioz erator daitezkeen bidaia, ostatu, dieta, eta abarretarako gastuak, artista bakoitzari dagozkionak.

13.3. Onartutako beka banku-transferentzia bidez ordainduko da, Udal honen Hartzekodunen Erregistroan ageri den pertsona edo erakundearen kontu korrontean dirua sartuz.

13.4. Ez da finantza-laguntzarik emango, Bilboko Udalak diruz lagundutako beste edozein proiektu edo programa bat guztiz justifikatuta ez badauka erakunde eskatzaileak.

## **14. ARTIKULUA: PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK ETA BILBOKO UDALAK BEKAREN PUBLIKO EGITEA**

14.1 Beka jasotzen duen edozein pertsonak edo erakundek publiko egin behar du udal finantzazio hori, eta proiektua Bilbaoeszenaren "Artistak Egoitzan 2018" programaren laguntzaz burutu dela aipatu beharko du; halaber, sortzen dituen material inprimatuan (kartelak, foiletoak, informazio orriak...), oroigarrietan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetako iragarkietan dagokion logotipoa agertu beharko da.

Horretarako, logotipoa pertsona edo erakunde interesatuen esku jarriko du Bilboko Udalak.

14.2 Bilboko Udalak eta Bilbaoeszenak euren artxiboetarako ikus-entzunezko materiala eta komunikazio-euskarriak lortzeko eskubidea dute.

## **15. ARTIKULUA: ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Onuradunak betebeharrak hauek ditu:

- Beka jaso duen proiektua burutu behar du, alde bietan aldez aurretik adostu bezalaxe eta ezartzen den eguneko lan saioa betez.

- Sorkuntza-proiektuak badira, laguntza ekonomikoaren % 15 eta % 20 bitartean egoitzaren ekoizpena kudeatzeaz arduratzen den pertsona edo erakunde bat kontratatzeko erabili behar da. Pertsona edo erakunde hori, eragingarritasun kontuengatik, tokiko agentea (Bilboko) izatea aholkatzen da. Horretarako, onuradunak hala eskatzen badu, produkzio eszenikoan adituak diren Bilboko pertsonen edo erakundeen zerrenda emango zaio.

- Lanaren amaierako aurkezpena edo/eta ekintza pedagogiko edo didaktikoren bat egin behar du publikoarekin edo beste artista batzuekin, beka ez beste ordainsaririk jaso gabe.

- Beka eman duen erakundearen aurrean egiaztatu behar du beka eskuratzeko baldintza eta eskakizunak betetzen dituela, jarduera gauzatu duela eta bekaren xedea bete duela.

- Beka eman duen erakundearen egiaztapen-jarduketei men egitea.

- Diruz lagundutako jardueretarako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak eskuratu dituela jakinarazi behar dio beka eman duen erakundeari, eta horren berri izan bezain laster jakinarazi beharko dio, betiere, jasotako diruaren erabilera egiaztatu baino lehen.

- Oinarri hauen 14. artikuluan aipatzen diren zabalkunderako neurriak hartzea.

## **16. ARTIKULUA: BEKEN JUSTIFIKAZIOA**

### **16.1. Justifikatzeko epea.**

Eman diren beka justifikatzeko epea bi hilabetekoa da, jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita.

### **16.2. Justifikatzeko modua.**

Beka justifikatzeko, pertsona edo erakunde onuradunak proiektuaren justifikazio-kontua aurkeztu beharko du.

Justifikatzeko kontuak hauxe izan behar du:

a) Proiektua burutzeko egin diren jardueren memoria.

b) Tutorearen edo tutoreen egiaztalaria, edo, behar denean, Bilbaoeszenaren arduradunena, proiektuaren helburuak bete direla eta lanaren aurkezpena edo ekintza pedagogiko edo didaktikoa publikoarekin edo beste artista batzuekin egin dela egiaztatzen duena.

## **17. ARTIKULUA: BEKA ITZULTZEA**

17.1 Justifikatzeko derrigortasuna bete ezean edo nahikoa justifikatzen ez badu, jasotako diru-kopurua itzuli beharko du, berandutzako interesak barne, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 37. artikulua 1. puntuan ezarri bezalaxe.

17.2 Hautatutako proiektuaren bat berorren arduradunari edo arduradunei egotzi ahal zaien arrazoi batengatik burutzen ez bada, edo amaierako emaitzak proiektu artistikoarekin edo hasierako aurrekontuarekin argi eta garbi, eta, ebaluatzeko moduren bat erabilita, bat egiten ez badu, eman zaion laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko du.

## **18. ARTIKULUA: ARAUDIA**

18.1. Lehiaketa honetan parte hartzeak arauok osorik onartzen direla esan gura du. Oinarrietan araututa ez dagoenerako, ordezeko izaeraz, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Bilboko Udalak 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen ordenantza hori eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2016ko uztailaren 20ko 138 zenbakian argitaratu zen.